

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nazioarteko Biltzarraren bitartez, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariaren 50. urtemuga ospatuko da martxoaren 6an eta 7an

Hiru hitzaldi antolatu dira nazioarteko adituekin eta mintegiak eta tailerrak ere bai

Asteartea, 2019.eko martxoak 5

Nafarroako Gobernuak [Nazioarteko Biltzarra](#) antolatu du “*Fontes Linguae Vasconum*” aldizkariaren 50. urteurrena dela-eta, aldizkari zientifiko horren lana eta Nafarroako gizarteari nahiz mundu akademikoari egiten dion ekarpena ezagutzera emateko asmoarekin. Biltzarra Iruñean izango da martxoaren 6an eta 7an, ondorengo izenburuarekin: “FLV, 50 urte: metodo eta joera berriak (euskal) hizkuntzalaritzan”.

Euskalaritzaren alorreko ikasketen azken berriez gain, nazioarteko hizkuntzalaritzak euskararen gaineko ikasketei egindako ekarpen teoriko-metodologikoak ere bilduko dira bertara.

Biltzarrean zehar, 3 [hitzaldi](#) eskainiko dituzte nazioarteko hizkuntzalari adituek, eta izena emandako 150 pertsona baino gehiago bilduko dira.

Asteazkenean, martxoaren 6an, Salamancako Unibertsitateko Filologia Klasikoko doktoreak eta UPV/EHUko Indoeuropar Hizkuntzalaritzako katedradunak, Joaquín Gorrochateguik, ondorengo hitzaldia eskainiko du: “*Fontes Linguae Vasconum*. Jatorriak eta dokumentuak Euskararen Historiarako”.

Arratsaldean, berriz, Sevillako Unibertsitateko irakasle titularra den Lola Ponsel, gazteleraren historian eta testuen edizioan adituak eta hizkuntzalaritzaren hedapeneko lan ugariren sortzaileak, ondorengo hitzaldia emango du: “Hizkuntzalaritza historikoak neolatina aurkitu zuenean”,

Azkenik, martxoaren 7an, Lyle Campbellek, Hawái Mānoa Unibertsitateko Hizkuntzalaritza Departamentuko irakasle emerituak eta hizkuntzalariak “Hizkuntzalaritza historikoa: egungo egoera” hitzaldia emango du, egungo hizkuntzalaritza historikoan garapen berriak eta gai gorienak ikuskatzearen.

Biltzarrean, halaber, hamar tailer edo workshops egingo dira diziplina-eremu ezberdinak sakontze aldera: euskararen soziolinguistika, literatura, onomastika, didaktika, filologia, dialektologia, hizkuntzaren tipologia, gramatika formala, fonologia eta gramatika historikoa. Gaikako tailer bakoitza arlo horretan aditua den pertsonak zuzenduko du, hitzaldi bat ematearekin batera.

Aldizkari erreferentea

Nafarroako Foru Aldundia, Vianako Printzea Erakundearen bidez, Fontes Linguae Vasconum aldizkari zientifikoa hasi zen argitaratzen 1969an, euskal filologia eta hizkuntzalaritza arloko ikerketa zientifikoa ezagutzera ematearren.

Sortu zenetik, aldizkaria hizkuntzalaritzaren nazioarteko estandar akademikoetara doitz joan da esparru zientifikoan —filologian, literaturan eta hizkuntzalaritzan— erreferentziazko argitalpen bilakatu arte. Aldizkariak bide oparoa izan du, 125 zenbaki argitaratu baitira.